

**2015eko MAIATZAREN 20an UDALBATZARRAK EGINDAKO
APARTEKO OSOKO BILKURAREN AKTA 6 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2015eko maiatzaren 20an, iluntzeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen aparteko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Juan Luis Illarramendi Roteta jn.
Bertaratutako zinegotziak	Eider Illarramendi Azkue and. Jabier Etxaburu Elu jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Alizia Osa Otxandorena and. Mikel Goenaga Gubia jn. Ane Eizmendi Alberdi and. Gari Berasaluze Ostolaza jn. Imanol Lasa Zeberio jn. Maite Garrastazu Aranguren and. Maribel Albizu Barrenetxea and. Iban San Martin Hernandez jn. Ixidor Larrañaga Aierbe jn. Jesus Arana Gomez jn. Patxi Elola Azpeitia jn. Gloria Vazquez Herranz and. Irma Domingorena Zapiain and. Mariana Aranburu Garate and. Aser Lertxundi Manterola jn.
Ez da etorri	M ^a Jose Lafuente Grasa and.
Idazkaria	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.
Kontu-hartzailea	Lioba Maiza Rekondo and.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatzeari ekin dio Udalbatzarrak. Bilkura honela izan da:

GAI-ZERRENDA

1.- AURREKO BILKUREN AKTAK ONARTZEA

a) 2015eko apirilaren 27koa

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

b) 2015eko apirilaren 29koa

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- ZARAUZKO UDALEKO LANPOSTUEN BALORAZIOA. HASIERAKO ONESPENA

Alkatetzaren 2015eko martxoaren 6ko 0325 Dekretuaren bidez Consultores de Gestión Pública SL enpresari esleitu zitzaion Zarauzko Udaleko lanpostuen balorazioa egiteko zerbitzua.

Bestalde, Alkatetzaren 2015eko martxoaren 20ko 0402 Dekretuaren bidez, Zarauzko Udaleko lanpostuen baloraziorako batzordekideak izendatu ziren.

Gero, 2015eko martxoaren 23ko bileran, BALORAZIOKO BATZORDE TEKNIKOA eratu zen eta, besteren artean, batzorde horrek jarraituko duen araudia adostu zen. Alkatetzaren 2015eko martxoaren 31ko 0441 Dekretuaren bidez onartu zen araudi hori.

Martxoaren 31ean Balorazioko Batzorde Teknikoak egindako bileran, LANPOSTUEN BALORAZIORAKO METODOAREN ESKULIBURU TEKNIKOA aurkeztu zien Consultores de Gestión Pública enpresak batzordekideei, eta sortutako zalantzak argitu zizkien. Era berean, Eskuliburu horren aplikazioan lortutako emaitzak jasotzen zituzten taulak aurkeztu zizkien enpresa horrek batzordekideei:

- Balorazio taula: Eskuliburuaren faktore bakoitzean lanpostu bakoitzak lortutako puntuazioa, guztizko puntuazioa eta Hitzarmen-mailaren proposamena jasotzen duena.
- Ordainsarien taula: Balorazioaren emaitzaren eta gaur egungo ordainsarien arteko aldea jasotzen duen taula.

Batzordekideek lanerako hiru asteko denbora-tartea hartuta, apirilaren 21ean egin zen hurrengo bilera. Bertan Lanpostuen Baloraziorako behin-behineko proposamena egin zen, Batzordearen araudian ezarritakoaren arabera eta Eskuliburu

teknikoa aplikatuta. Horren emaitza dira akordio-proposamen honekin batera aurkeztutako bi taulak (Balorazio taula batetik eta Ordainsarien taula bestetik).

Horiek ikusita, langileen ordezkarezekin egin beharreko negoziazioaren izapideak bete ondoren, eta aurrez, Koordinazioko informazio-batzordeak irizpena eginda, Udalbatzarrak aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- Hasierako onespena ematea Zarauzko Udaleko Lanpostuen Balorazioari, Balorazioko Batzorde Teknikoak egin du proposamenaren arabera. Dena den, erabakitzeko gelditzen dira negoziatio-mahaiak erabaki beharreko ondorengo puntuak:

- Zarauzko Udaleko lanpostuen ordainsarrietan lanpostu-mailako osagarriaren eta berariazko osagarriaren banaketa zehatza.
- Prestasun kontzeptua.
- Zarauzko Udaleko Enplegatu Publikoen Ordainsarien Araudia.

Bigarrena.- Lanpostu bakoitza betetzen duen langileari emaitza hori jakinaraztea eta 15 egun baliodunetako epea ematea, egoki ikusten dituen alegazioak egin ditzan. Horretarako langileen esku jarriko dira BALORAZIOKO BATZORDE TEKNIKOAREN ARAUDIA eta LANPOSTUEN BALORAZIORAKO METODOAREN ESKULIBURU TEKNIKOA.

3.- U-GE-04 ZK. DUEN KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEA (KREDITU GEHIGARRIEN MOTALITATEAN) 2015. EKITALDIRAKO AURREKONTUAN. HASIERAKO ONESPENA

Zarauzko Plan Orokorreko 2-2 arean –OR ALDAPETA– sartutako jarduerak finantzatu ahal izateko, beharrezkoa da kreditu aldaketarako espediente bat onartzea.

Horretarako, 2015. ekitaldiko aurrekontuan U-GE-04 zenbakia duen kreditu aldaketarako espedientea prestatu da. Kreditu gehigarrien bidez gauzatuko da.

Ikusita egin diren txostenak eta espedientean dauden dokumentuak, eta Koordinazio informazio-batzordeak hala proposatuta, Udalbatzarrak, gehiengoz,

ERABAKI DU

Lehena.- Hasierako onespena ematea U-GE-04 zenbakia duen kreditu aldaketarako espedienteari. Udal honek 2015. ekitaldirako duen aurrekontuari dagokio, eta kreditu gehigarrien bidez gauzatuko da, laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kap.	Izena	Gehikuntzak
7	Kapital transferentziak	210.000,00 €
	GUZTIRA ...	210.000,00€

BALIABIDEAK

Kap.	Izena	Zenbatekoa
8	Finantza aktiboak	210.000,00 €
	GUZTIRA ...	210.000,00 €

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 15 egun balioduneko epean, erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan daitezten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Epe hori igarota erreklamaziorik aurkeztu ezean, kreditu aldaketa behin betiko onartutzat hartuko da. Bestela, berariazko erabakia hartu beharko da, egindako erreklamazioak erabakitzeko. Dena den, aurrekontu orokorra onartzeko ezarritako gainerako izapideak bete beharko ditu espedienteak.

4.- 2016. ETA 2017. URTEETARAKO KONPROMISO KREDITUAK ONARTZEA: 2-2 AREAN –OR ALDAPETA– AURREIKUSITAKO JARDUERAK FINANTZATZEKO

Zarautzko Udalak Zarautz-Lur SA entitateari ekarpen ekonomiko batzuk egin nahi dizkio, Zarautzko Plan Orokorreko 2-2 arean –OR ALDAPETA– sartutako jarduerak finantzatzeko erabil ditzan. Horretarako, konpromiso-kreditu hauek onartu behar ditu:

- 2016. urtean:	745.818,37 €
- 2017. urtean:	745.818,37 €

Ikusita Koordinazio informazio-batzordeak aurkeztutako proposamena, Udalbatzarrak, gehiengoz,

ERABAKI DU

2016. eta 2017. ekitaldietarako urte anitzeko gastu-konpromisoa onartzea, guztira 1.491.636,74 eurokoa. 2-2 arean –OR ALDAPETA– sartutako jarduerak finantzatzeko erabiliko da, eta honela banatuko da:

- 2016. urtean	Konpromiso-kreditua	745.818,37 €
- 2017. urtean	Konpromiso-kreditua	745.818,37 €

5.- ZARAUTZ-LUR SA SOZIETATEAK JASOTAKO DIRU-EKARPENEN XEDEA ALDATZEA

2009., 2010. eta 2011. urteetan Zarauzko Udalak diru-ekarpen batzuk egin zizkion Zarautz-Lur SA lurzoru eta etxebizitzarako udal erakundeari (bazkide bakarra Zarauzko Udala bera da), sozietatearen aurrekontuetan sartuta zeuden proiektu jakin batzuk finantzatzeko.

Hala eta guztiz ere, eta 2014. urtean sortutako premia batzuk zirela medio, sozietateak beste premia batzuei erantzun behar izan zien eta zati batetan, adierazitako partida haien kontura, lehenasunezko beste gastu batzuk finantzatu behar izan zituen.

2015eko maiatzaren 4an Zarautz-Lur SA-k aurkeztutako idatzian (Udaletxeko sarrera-erregistroan 4.425 zk., 2015ko maiatzaren 4koa), Udalari jakinarazi dizkio Administrazio Kontseiluak, 2015eko martxoaren 17an egindako bilkuran, hartutako erabakiak. Bertan, aldaketak egiteko arrazoiak jasotzen dira eta, laburbilduta, honako hauek dira:

1.- Azpeitiko Epaitegian 230.000,00 euro kontsignatu beharrari erantzuteko erabilitako zenbatekoak, 2009. urteko abenduan gauzatutako hitzarmena eta salerosketa ez betetzeagatik Santa Ana Fundazioak hasi zuen prozedura judizialen barnean.

Proiektua	2014. urtean zegoen udal ekarpena. Zenbatekoa	Kontsignazioa egiteko erabilitakoa	Gerakina
ITSASMENDI	226.000,00	226.000,00	0,00
AMILLUBI	139.916,48	4.000,00	135.916,48

2.- Hondartza aparkalekuko garajeak eta trastelekuak tasatzeko lanak eta 2014. ekitaldiko beste gastu arrunt batzuk finantzeko erabilitako zenbatekoak: guztira, 44.662,00 euro.

Proiektua	2014. urtean zegoen udal ekarpena. Zenbatekoa	Gatu arrunterako erabilitakoa	Gerakina
SALBERDIN	8.690,00	8.690,00	0,00
AMILLUBI	135.916,48	33.972,00	101.944,48

Ikusita Koordinazio informazio-batzordeak aurkeztutako proposamena, Udalbatzarrak, gehiengoz,

ERABAKI DU

Lehena.- Udalak Zarautz-Lur SA sozietateri, ITSASMENDI eta AMILLUBI eremuetako proiektuetara zuzenduta, egindako diru-ekarpenen xedearen aldaketa

berrestea. Izan ere, Santa Ana Egoitzaren Fundazioaren alde, 230.000,00 euroko zenbatekoaz, egin beharreko kontsignazio judizialaren gastuei erantzuteko erabili baitziren, era honetan banatuta.

Proiektua	2014. urtean zegoen udal ekarpena. Zenbatekoa	Kontsignazioa egiteko erabilitakoa	Gerakina
ITSASMENDI	226.000,00	226.000,00	0,00
AMILLUBI	139.916,48	4.000,00	135.916,48

Bigarrena.- Udalak Zarautz-Lur SA sozietateri, SALBERDIN eta AMILLUBI eremuetako proiektuetara zuzenduta, egindako diru-ekarpenen xedearen aldaketa berrestea. Izan ere, 44.662,00 euroko zenbatekoaz, 2014ko ekitaldiko gastu korronteari erantzuteko erabili baitziren, era honetan banatuta:

Proiektua	2014. urtean zegoen udal ekarpena. Zenbatekoa	Gatu arrunterako erabilitakoa	Gerakina
SALBERDIN	8.690,00	8.690,00	0,00
AMILLUBI	135.916,48	33.972,00	101.944,48

6.- BETERRI KOSTAKO INDUSTRIALDEA SA. IRITAKO ENPRESA-PARKEA GARATZEARI, SUSTATZEARI ETA GAUZATZEARI UKO EGITEA

2008an Zarauzko Industrialdea SA sozietate publikoak (egun, Beterrri Kostako Industrialdea SA) eta Zarauzko Udalak hirigintzako hitzarmena sinatu zuten, Zarauzko 17-2 area -OR IRITA- gauzatzeko. Udalbatzarrak 2008ko uztailaren 30ean onartu zuen hitzarmen hori.

Desjabetze-sistema izan zen Irita arearako aurreikusitako jarduketa-sistema. Hitzarmena betez, Zarauzko Industrialdea SAr eman zitzaion onuradun izaera desjabetze-espeditetan. 2009ko otsailaren 19an onartu zuen Udalak baterako tasazioko desjabetze-proiektua. Urbanizazio proiektuak, ordea, ez zuen behin betiko onespentik jaso.

2015eko martxoaren 6an egindako administrazio-kontseiluan, Beterrri Kostako Industrialdea SA sozietateak besteak beste erabaki zuen IRITAKo enpresa-parkea garatzeari, sustatzeari eta gauzatzeari uko egitea. Sustapenari ezustean etorritako bideraezintasunean oinarritu zuten erabaki hori.

Hirigintza eta Ingurumeneko udal zerbitzuak uko egiteari eta horren ondorioei buruzko txostena egin zuen. Udalerrri Ereduaren eta Lurralde Antolaketaren udal informazio-batzordeak ere gaia eztabaidatu zuen.

Espedientea aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, gehiengoz,

ERABAKI DU

Beterri Kostako Industrialdea SA sozietatearen administrazio-kontseiluak 2015eko martxoaren 6an hartutako erabakiaren berri hartzea; onartzea Zarauzko 17-2 arearako –OR IRITA– proiektatutako jarduketaren bideraezintasuna egiaztatuta dagoela; eta, ontzat ematea, desjabetzearen onuradun gisa deklaraturako erakundea den aldetik, enpresa-parkea garatzeko, sustatzeko eta gauzatzeko egin duen ukoa.

Alkatetzak hartuko ditu ukoak eragindako espediente guztietan bidezko diren erabakiak, bai orain tramitatzen ari direnetan, bai haren ondorioz tramitatuko direnetan (urbanizazio-proiektua, desjabetzea, lurak itzultzeko eskubideak...).

7.- AIAKO ETA ZARAUZKO UDALEK SINATU BEHARREKO LANKIDETZA- HITZARMENA, ELKANO AUZOAN FRONTOIA ETA EKIPAMENDU SOZIOKULTURALEKO LOKALA ERAIKITZEKO

Aiako eta Zarauzko udalerriko lurretan dago Elkano auzoa. Aiako Udalak plan berezia sustatu eta onartu zuen Elkano auzoan, bere udalerrriaren barruan, ekipamendu komunitarioa jartzeko (frontoia eta lokal soziokulturala).

Nahiz eta Aiako ekimena izan, Zarauzko Udalak egoki iritzi zion ekipamendu horiek egiteko laguntza emateari, Zarauzko herritarrentzat ere onuragarriak izango direlako, eta bereziki, Elkano auzokoentzat.

Aiako eta Zarauzko udalen ordezkarien artean elkarrizketak izan ondoren, lankidetzahitzarmenerako proposamena adostu zuten.

Hirigintza eta Ingurumeneko udal zerbitzuak proposamenari buruzko txostena egin zuen, eta Udalerri Ereduaren eta Lurralde Antolaketaren informazio-batzordean proposamenaren inguruan eztabaidatu zen.

Udal kontu-hartzaileak fiskalizazio ekonomikoaren txostena egin du. Aurrekontuan izendapen nahikoa badago, 2015erako hartuko den gastu-konpromisoari aurre egiteko (60.000 €).

Espedientea aztertu eta eztabaidatu ondoren, eta hirigintza eta ogasun arloetako zinegotziak hala proposatuta, Udalbatzarrak, aho batez/ gehiengoz,

ERABAKI DU

Lehena.- Honako aurrekontu-kreditua onartzea 2016 eta 2017 urteetan urte anitzeko gastuari aurre egiteko:

- 2016. urtean, konpromiso-kreditua: 90.000 €
- 2017. urtean, konpromiso-kreditua: 90.000 €.

Bigarrena.- Onespena ematea Aiako eta Zarauzko udalek izenpetuko duten lankidetzeta-hitzarmenari, Elkano auzoan frontoia eta ekipamendu soziokulturaleko lokala eraikitzeke.

Hirugarrena.- Alkatetzari ahalmena ematea udalaren izenean hitzarmena sina dezan.

HITZARMENA

Aian , 2015eko maiatzaren.....

ELKARTZEN DIRA

Alde batetik, Igor Iturain Ibarburen, Aiako Alkatea eta

Bestetik, Juan Luis Illarramendi, Zarauzko Alkatea, 2015eko maiatzaren 20an Udalbatzarraren Osoko Bilkurak erabakitakoa betetzeko.

XEDEA

A.- Elkano auzoa Aia eta Zarauzko herrien artean banatuta dago. Aiako udalerrian dagoen auzoaren zati bat hiri-lur legez dago sailkatuta; Zarauzko udalbarri barruan dagoena, berriz, lurzoru urbanizaezina legez dago sailkatuta.

B.- Aiako Udalak auzoko bizitza indartu eta auzotarren arteko harremanak berpizteko bertan ekipamendu komunitarioa ezartzeko plan berezia onartu egin zuen. 2014ko urrian, frontoia eta auzotarrentzako elkarte eraikitzeke proiektua idatzi zuen plan berezi hori garatuz, Elkano auzoan oinarritzko zerbitzuak ezartzearen aldeko apustua egin zuen.

C.- Eraikitzeke proiektua abian jarri aurretik, harremanak eduki zuten Aia eta Zarauzko udalek. Alde batetik, Zarauzko Udalak egokia iritzi zuen ekipamendu horiek egiteko laguntza ematea Zarauzko Elkano auzoko herritarrentzat ere, mesedegarriak direlakoan. Bestetik, Aiako Udalak beharrezkoa ikusi zuen Zarauzko udalerrian dauden lurak okupatzea ekipamenduen aparkaleku dotazioa jartzeko.

D.- Egoera horretan bi Udalek **frontoia, auzotarrentzako elkarte eta ekipamendu horien ondoko aparkalekua** egiteko lankidetzeta hitzarmena sinatzea egoki ikusten dute. Guzti hori kontutan hartuta,

ADOSTEN DUTE

1.- Xedeetan aipatu diren azpiegitura horiek jasoko dituen proiektuaren gestioa Aiako Udalaren esku joango da, beti ere, Zarauzko Udalaren oneritziarekin.

Ondorio horietarako Zarauzko Udala ados agertu da aparkalekua Zarautz herriko lurretan egitearekin. Aparkalekuak, guztira, Zarauzko udalerrikoak diren 495m2 inguruko lurzorua hartuko du. Okupatuko den lursailen planoa (1:250 eskalan) erantsiko zaio hitzarmenari.

2.- Azpiegitura hauek legez gauzatu daitezten egin beharreko gestio eta izapidetza administratiboak, Aiako Udalaren esku joango dira, beti ere, kasua balitz, Zarauzko Udalaren laguntzaz.

3.- Proiektu horren gauzatzea 2015. urtean aurrirakusten da. Exekuzio proiektuaren, lehen fase batean, frontoiaren estalkia kenduta, aurrekontua 773.913,81 (BEZ barne) eurokoa da, eta bigarren fase batetan egin beharreko estalkiarena 139.150 (BEZ barne) euro. Guztira proiektuaren aurrekontua bere osotasunean, aparkalekua kontuan izan gabe, 913.063,81 eurokoa izango da (BEZ barne).

4.- Proiektua gauzatzearen ardurua Aiako Udalarena izango da, hau da, lizitazio, adjudikazioa, obran nondik-norakoen kontrola e.a. Halaber, lursailen erosketa edota desjabetzeak, Aiako Udalaren kontura izango dira.

5.- Zarauzko Udalak, obra horiek gauzatzeko, 240.000 euro bideratuko ditu:

2015. Urtea: 60.000 euro

2016. Urtea: 90.000 euro

2017. Urtea: 90.000 euro

Horretarako bidezkoak diren akordioak eta konpromiso-kredituak onartuko ditu.

Zarauzko Udalak ez du aurreneko ordainketarik egingo lehen faseko obra bukaerako ziurtagiria aurkeztu arte eta obrarekin berariazko adostasuna agertu arte. Beste bi urteetan egin beharrekoak, urte bakoitzeko otsaila amaiera baino lehen egingo dira, beti ere, lehen faseko obrak (2016ko ordainketa) eta bigarren faseko obrak (2017ko ordainketa) amaitu eta adostasuna eman ondoren.

6.- Zarauzko Udalak jarri beharreko diru kopurua, 240.000 euro, itxia izango da, hau da, gerta litezkeen ez ustekoen kostuak Aiako Udalaren kargu joango dira.

7.- Aia eta Zarauzko Udalek adosten dute baita ere, behin auzotarrentzako elkarteak amaitutzat ematen denean, bertako barne egituraketa eta gestioa auzotarrena izango dela, lokalaren erabilera uzketan bidez gauzatu sortuko den elkartearengan, kontsezio bidez.

8.- Aiako Udalak bere gain hartuko du frontoia, auzotarrentzako elkarteak, ekipamendu horien ondoko aparkalekua eta bertara doan bidearen mantenu lan guztiak (garbiketa, konponketa lanak...) eta baita ere, horien zerbitzurako instalatuko diren sare guztiak (argiteria, saneamendu...), nahiz eta zati batean Zarauzko udalerrian kokatuta egon.

9.- Hitzarmena sinatu ondoren bi udalen arteko jarraipen batzordea eratuko da. Udal bakoitzak ordezkari bana edukiko du; Zarauzko udalarena Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuetako udal Departamentuko arduradun teknikoa izango da; Aiakoa udal horrek izendatuko duena. Jarraipen-batzordearen funtzioak honakoak izango dira: oro har obren jarraipena egitea eta, bereziki, Zarauzko lurretan egingo den aparkalekuaren obrak. Jarraipen-batzorde horrek zentzuzko iradokizunak eta proposamenak egin ahal izango dizkio obra-zuzendaritzari.

Kontuan hartuta, 30/92 Legeak 3.2 atalean aurreikusten duen administrazio desberdinen arteko elkarlana eta elkarlaguntza,

Elkarren adostasunaren seinale, hitzarmen hau sinatzen dute, goian aipatutako lekua eta datan.

Eta aztertzekeo besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, bilkurari amaiera eman diote, gaueko bederatzia hamar gutxitan, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.